

ORDENANTZA, EZKABARTEKO MENDIKO PISTEN ETA BIDEEN ERABILERA ARAUTZEN DUENA

Ezkabarteko landabide publikoen sarea ezkabartear guztien ondarearen zatia da. Berebiziko garrantzia du udal mugapeko mendi eta landetako aberastasuna zaintzeko eta hartara sarbide izateko. Funtsezkoa da herritarren arteko komunikaziorako eta bisitarien nahiz pasadizokoen harat-honatak errazteko. Ongi zaindurik egoteak herritar guztiei egiten die on.

Pista eta bide publikoak gero eta gehiago erabiltzen baitira, beharrezkoa da haien erabilera arautzea. Xedea hirukoitza da: Ezkabarteko natur ondarea zaintzea, erabiltzaile guztiek eta bereziki herritarrek modu orekatuan erabiltzea eta erabiltzeko egoera onean mantentzea.

Helburua horixe dela, Ezkabarteko Udalak ordenantza hau onetsi du:

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.

Ordenantza honek Ezkabarteko Udalaren eta babestutako toki ente tikiagoen herrilurretan dauden bideak nola erabili eta nola baliatu arautzen du.

2. artikulua. Landa bideen kategoriak.

Erabilera nagusia zein duten, Ezkabarteko landabide publikoak kategoria hauetan sailkatzen dira:

1.–2 metro zabal edo zabalagoak diren bideak.

a) Pista nagusiak, mendietako eremu zabaletara iristeko erabiltzen direnak, edota inguruko herrietara iristeko. Gauza bat baino gehiagotarako erabiltzen dira: basogintza, abeltzaintza, turismoa, ehiza...

b) Bigarren mailako pistak, sare nagusiaren osagarri direnak, eta mendi, basoberri, belardi eta bertze zenbait tokitara iristeko aukera ematen dutenak.

c) Egurra ateratzeko bideak eta bide-adarrak: sareko egitura meheena osatzen dute; gehienetan helburu bakarra dute, gehienetan zura ateratzea edo norbanakoen lurzatietan sartzea. Anitzetan noizean behin baizik ez dira erabiltzen, eta denbora luzez ez dira ibilgailuak sartzekoak.

2.–2 metro zabal baino meharragoak diren bideak: bideak, orgabide zaharrak eta bidexkak, erabilera eta eginkizun bat baino gehiago dutenak, lasterbideak eta turismorako bidexkak barne.

3.–Ibai parkea. Ezkabarteko Udalak izaera berezia ematen dio, aunitz erabiltzen den bidea baita. Kontuan harturik gero eta erabiltzaile gehiago ibiltzen direla bide honetan, Udalak nabarmentzen du ibilgailu mota guztietako gidariak, haiek motordunak izan ala ez izan, abiadura egokitzea saiatuko direla, oinezko, txirrindulari eta animalientzako istripu arriskua eta trabak murrizteko eta saihesteko. Betiere, Iruñerriko Mankomunitateari dagokio hura arautzeko eskumena.

3. artikulua. Zaintzea.

Ezkabarteko Udalak zainduko du 2.1.a), b) eta c) ataletan zehazten diren mendiko bide publikoak beti egon daitezen erabiltzeko maneran. Horretaz gain, behar diren neurriak hartuko ditu gal ez daitezen interesgarritzat jotzen diren bertzelako bideak (bertzeen adar direnak, bidexkak).

2. artikulua 2. atalean definituriko landa bide publikoetan, Ezkabarteko Udalak prebentziozko mantentze lanak baizik ez ditu egingen.

Hiru metroko zortasun eremua errespetatuko da bidearen kanpo aldetik, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 112.2 artikuluan jasotzen den gisara.

Bide publikoekin eta erabilera publikoko bertze lur mota batzuekin muga egiten duten finken jabeek bide horien mugan dauden itxitura guztiak garbi-garbi edukiko dituzte, eta jabetza pribatutik atera eta itxituraren bertikala gainditzen duten oztopo guztiak kenduko dituzte. Partikularra itxituraren garbiketaz arduratzen ez bada Udalak egingen du eta lan horien kostua kobratuko dio partikularrari.

4. artikulua. Ibilgailu motordunak.

Orokorrean, debeku da pistetatik kanpora mendian barna ibilgailu motordunetan ibiltzea, baita bi metro zabal baino estuago diren pistetan barna ere, ondoko paragrafoan xedatzen dena kontuan hartuko bada ere.

Mendiko pistetan, ibilgailu motordunen zirkulazioak arau hauek izanen ditu:

1. Udal ordenantza honi dagokionez, oihanean den edozein bide hartuko da mendiko pistatzat, zola emanda egon edo ez egon. Ez dira mendiko pistatzat hartuko Nafarroako errepideen sarean sartuta dauden komunikabideak.

2. Bertzelako baimenik deusetan ukatu gabe, honako ibilgailu motordun hauek ibiltzen ahal dira Ezkabarteko mendiko pistetan:

a) Oihaneke suteen prebentziorako edo suteak itzaltzeko erabiltzen diren ibilgailuak.

b) Edozein administrazio publikoren ibilgailu ofizialak.

c) Mendiko pistak zerbitzua ematen dien lurretan egiten diren oihan lanetan erabiltzen diren ibilgailuak (oihan aprobetxamenduekin, oihaneke beharrekin eta oihaneke azterlanekin ikusteko duten jarduera guztiak sartzen dira oihan lanetan).

d) Nekazaritzako eta abeltzaintzako zereginetan erabiltzen diren ibilgailuak, zeregin horiek egiten diren lurrei zerbitzua ematen dien mendiko pistetan ibiltzen direnean.

e) Administrazio publikoenak ez diren ibilgailuak baina naturguneetan zaintza lanetan aritzen direnak.

f) Linea elektrikoekin eta telekomunikazioekin mantentze lanetan erabiltzen diren ibilgailuak, baita ur eta hondakinen mankomunitateekin ere.

g) Ehiza barrutietako bazkideen eta zaindariaren ibilgailuak, ehiza denboraldian, lurrei zerbitzua ematen dien mendiko pista ibiltzen direnean.

h) Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak baimendutako kanpaleku antolatuei sostengu egiteko ibilgailuak.

5. artikulua. Baimena, motozikleta eta ardatz bakoitzeko 3,5 tonatik beheitiko pisua duten ibilgailu motordunendako, halako pista batzuetan barna ibiltzeko.

Udalak onetsiko du pista nagusien zerrenda bat, zeinetan barna motozikletek eta ardatz bakoitzeko 3,5 tonatik beheitiko pisua duten ibilgailu motordunek libre izanzen baitute ibiltzea.

Udalak berak aldatzen ahalko du zerrenda hori, kontuan hartuz une bakoitzeko goiti-beheitiak, pisten egoera edo berak ikusten duen bertze arrazoiren bat.

6. artikulua. Gainerako pistetan ibiltzeko debekua.

Ezkaibarteko gainerako pistetan debeku da ibilgailu motordunak baimenik gabe ibiltzea, salbu eta nekazaritzari, abeltzaintzari, oihangintzari edo baimena duten bertzelako jardueri lotutako ibilgailuak badira.

7. artikulua. Baimena emateko eskumena.

Udalak emanen du Ezkaibarteko pistetan barna ibiltzeko baimena. Baimena eskatzen ahalko dute Ezkaibarteko bizilagunek, baldin eta ibilgailuren bat badute udalerrian erregistraturik, bai eta bertze pertsona batzuek ere, baldin eta beren ibilgailuekin ibiltzeko beharra arrazoitzen badute.

Baimenak izaten ahal dira bide orotarako eta urtebeterako edo denbora tarte baterako eta toki jakin batzuetan ibiltzeko.

8. artikulua. Baimena, 3,5 tona/ardatz baino gehiagoko ibilgailuendako.

3,5 tona/ardatz baino gehiagoko ibilgailu guztiek baimena beharko dute Ezkaibarteko landabide publikoetan barna ibiltzeko, salbu eta 4. artikuluko 2. lerroaldean zehazten direnak badira.

Udalak emanen du baimen hori.

9. artikulua. Zur aprobetxamendu pribatuen garraioa.

Mendi pribatuetako zur aprobetxamenduetarako betebeharrak eta kargak dagokion ordenantza fiskalean ezarriko dira.

10. artikulua. Zerbitzu publikoak.

Erakunde eta entitate publikoen ibilgailuek ez dute baimenik behar, beren eginkizunetan ari direnean.

11. artikulua. Ibiltzeko gehieneko abiadura.

1.–Ezkaibarteko mendiko pista guztietan gehieneko abiadura 30 kilometro orduko izanen da edozein ibilgailu motarentzat, dela motorduna dela motor gabea.

12. artikulua. Pisten egoerari eta inguruabarrei dagokien abiadura.

Istripurako arriskuak apaltzeko, eta oinezko, txirrindulari eta animaliei trabarik ez egiteko, gidariek beren abiadura egokitu beharko dute, maldetan eta toki arriskutsuetan behar adina mantsotuz, baita aziendak hurbil dabiltzanean eta oinezkoak agertzean ere, edo denbora idorra denean, pistetan hautsa pilatzen baita.

13. artikulua. Jarduera debekatuak.

Lehiaketak, lasterketak eta taldeka eta motorretan antolatzen diren turismo jarduerak espresuki debekaturik gelditu dira, hala nola pasealariei, txirrindulariei, etxeko animaliei eta basa-faunari arriskua ekartzen ahal dieten gidatze molde arriskutsu guztiak. Salbuespen gisa, Udalak baimena ematen ahalko du ibilgailu motordunen lehiaketa ofizialak eta taldean antolatzen diren jarduera turistikoak egiteko.

Hauek ere debeku dira arras:

1. Lurra lantzean, traktorearekin bidera ateratzea itzulbira eghiteko.
2. Harriak eta nekazaritzako hondakinak botatzea bide, areka eta erretenetara.
3. Areketara lurra bota eta betetzea, haietatik hurbil nekazaritzako lanak egitean.
4. Nekazaritzako hondakinak bideetan, areketan edo erretenetan erretzea.
5. Lanabesak edo bertze edozein makineria garraiatzea, bideetako zolaren kaltetan bada.

14. artikulua. Erabiltzaileen erantzukizuna.

Erabiltzaileek beren gain izanen dute ordenantza honetan aipatzen diren arauak ez betetzeagatik pistetan egiten dituzten kalteen erantzukizuna.

15. artikulua. Pisten inbentarioa.

Udalak pista guztien eta dagozkien kategorien inbentarioa eta planoak egiten ditu.

16. artikulua. Bideen erabilera berezia.

Bideen erabilera berezia da pisu gordina 20 Tm baino handiagoa duten ibilgailuek egiten dutena, nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioetan obrak egitean, etxebizitza berriak eraikitzean edo oihangintzan aritzean.

Erabilera horretarako Udalaren baimena behar da; beharrezkoa izanen da jakitea jabea edo sustatzailea nor den, kamioia zein den, zenbat tona egiten dituen eta zenbat bidaia egin behar dituen. Hartara, Udaleko langileek agerraldia egiten dute bidea erabili aitzin eta bidea erabili ondoan.

Tasa ordaindu beharko da bideen erabilera bereziagatik; haren zenbatekoa ordenantza honen I. eranskinean zehaztuko da.

Orobat, 1.000 euroko fidantza pausatu beharko da Herriko Etxean, erabiltzen den bidean eragiten ahal diren kalteen berme.

17. artikulua. Arau-haustekak.

Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzea arau-haustetzat hartuko da.

18. artikulua. Zehapenak.

Ordenantza honen arau-hausteeak isuna ekarriko dute zehapen; gehienez ere 300 euro izanen da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 52. artikuluan ezarri bezala.

Zehapenak ezartzea eragindako kalte-galeren ordainetik aparte izanen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 117. artikuluan ezarriari jarraituz.

Isunen dirua eta kalte-ordainak biltzeko, premiamendu bidea erabiliko da, borondatez ordaintzen ez bada.

19. artikulua. Zehapen prozedura.

Arau-haustea ekar dezaketen egitateen berri emanen zaio alkateari; horrek behar den zehapen espedientea abiaraziko du, Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari eta Zehapen ahalmenaren erabilera arautzen duen Erregelamendua onesten duen abuztuaren 4ko 1398/93 Errege Dekretuari jarraikiz. Ezkabarteko alkatea da prozedura ebazteko eta zehapenak ezartzeko organo eskuduna.

I. ERANSKINA

Tasa, bideen erabilera bereziagatik.

Tasa euro 1 izanen da bidean barna ibili behar duen ibilgailuaren pisuaren tona bakoitzeko.